



FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1.artikulua- Eraketa, izena eta iraupena

Fundación Colegio Oficial de Médicos de Gipuzkoa / Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Fundazioa izenarekin fundazio bat eratu da, ekainaren 17ko 12/1994 Legearekin eta indarreko gainerako arauzko xedapenekin bat datorrena.

Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Fundazioa irabazi asmorik gabe eraturako erakundea da, bere sortzaileen borondatez, bere ondarea Estatutu hauetako 3. artikuluan deskribatzen diren interes orokorreko xedeetarako modu iraunkorrean ezarrita duena.

2. artikulua- Erregimen, nortasun eta gaitasun juridikoak

Fundazioak nortasun juridiko propio eta independentea du eraketa-eskritura Fundazioen Erregistroan erregistratzen denetik eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa izango du, fundatzaileek fundazio-ekitaldian, Estatutu hauetan eta, edozein kasutan, aplikatu dakizkiokeen lege-xedapenetan eta, bereziki, ekainaren 17ko 12/1994 Legean, EAeko Fundazioei buruzkoan, egindako borondate-adierazpenean ezarritako mugekin.

Horren ondorioz, eta Babesletzari egindako jakinarazpen egokien kalterik gabe, era guztietako ondasun higigarri edo higiezinak eta eskubideak eskuratu, kontserbatu, eduki, erabili, edozein modutan besterendu eta grabatu ahal izango ditu; era guztietako ekintzak edo kontratuak egin ahal izango ditu; maileguak jaso eta ordaindu; amore eman dezake eta gobernu-bidera edo bide judizialera jo, Epaitegi, Auzitegi eta erakunde publiko eta pribatuen aurrean era guztietako ekintzak eta salbuespenak gauzatu, ordenamendu juridikoan ezarritakoa betez.

3. artikulua.- Fundazioaren xedeak

Fundación Colegio Oficial de Médicos de Gipuzkoa / Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Fundazioak ongintza-, laguntza-, osasun- eta hezkuntza-mailako izaera izango du, bere onuradunen premia urgenteenak eta oinarritzkoenak asetzerantz bideratutakoa. Horren kariaz eta helburu zabal horien barruan, honako xede hauek ditu: sendagileen alargunei eta seme-alabei dohaintzak eta diru-laguntzak emateko gizarte-laguntza sustatu, gauzatu, babestu, lagundu eta finantzatzea, eta sendagileentzako eta sendagileen umezurtzentzako bekak eta laguntzak sustatzea. Hezkuntza- eta prestakuntza-arloan, Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko elkargokideentzako prestakuntza-ikastaroak antolatzea; medikuntzako ikerketa sustatzea eta babesgabe, behartsu eta hirugarren mundukoentzako osasun-sorospen eta -laguntzetan parte hartzeko boluntariora sustatzea, osasun-laguntza eskaintzen duten GKEetan parte hartuta.

4. artikulua- Xedeen garapena

Fundazio-xedeak Fundazioari egoki iruditzen zaion moduan gara daitezke, beste erakunde edo antolakuntza batzuetan parte hartzea barne, fundazio-gutunetik, Estatutu hauetatik eta, edozein kasutan, Legeetatik ondorioztatzen direnak beste mugapenik gabe. Xedeen garapena aldizkako edo aldi bakarreko laguntza eta prestazio ekonomikoen, diru-laguntzen eta beken bitartez gauzatuko da. Halaber, hezkuntza- eta prestakuntza-esparruetan Fundazioaren xedeak betetzeko prestakuntza-jarduerak egin ahal izango dira.

5. artikulua- Helbidea

Fundazioak Donostiako Frantzia pasealekuko 12 zenbakiko behean (Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialaren egoitzan) izango du helbidea. Patronatuak askatasuna du helbide soziala aldatzeko, baina horren berri Fundazioen Erregistroari jakinarazi beharko zaio. Halaber, Patronatuak eskumena du, kasuen arabera, fundazio-xedeak betetzearen ondoriozko premien arabera ezartzen diren establezimendu, ordezkartza edo bulegoen egoitzak finkatzeko.

6. artikulua.- Lurralde-eremua

Fundazioak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren esparruan garatuko ditu batik bat bere jarduerak, hirugarren munduko babesgabe eta behartsuei eskain diezazkiekeen osasun-laguntzen kalterik gabe.

7. artikulua. Onuradunak

1.- Fundazioaren prestazioen onuradunak izango dira Patronatuaren iritziz prestazio horiek jasotzea merezi duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak.

Onuradunak izendatzeko, pertsona juridikoen kasuan, garatzen duten jarduera, duten kalifikazioa, konpromiso sozial eta sanitarioaren maila eta aitortzen zaien ospea kontuan hartuta, Fundazioaren laguntza materiala, ekonomikoa, irakaskuntzakoa eta ezagutza-mailakoa jasotzea merezi duten Instituzioak eta Erakundeak izendatu beharko ditu Patronatuak.

Pertsona fisikoen kasuan, bestalde, jardunean jarraitzen duten edo ez duten medikuen, eta horien alargunen eta umezurtzen artean izendatuko ditu Fundazioak bere onuradunak, eskatzaileek laguntzetarako eduki ditzaketen meritu- eta gaitasun-irizpideak erabakiko dituzten arauak eta prozedurak ezarri ondoren.

Azterketa- eta ikerketa-lana ere sustatuko du, medikuntza arloko ezagutza, ospe, gaitasun eta dedikazioagatik onuradun izendatzea merezi duten Unibertsitate eta Irakaskuntza Institutuetako nahiz graduatu-ondoko hobekuntza-erakundeetako katedradunei eta irakasleei laguntza ekonomikoak, materialak eta azpiegiturakoak emanda. Aurrekoetz gain, Fundazioaren onuradunak izango dira artikuluko honek aipatutako erakunde edo pertsona fisikoek zuzendutako lantaldeak ere.

2.- Inork ezingo du alegatu Fundazioaren edo haren Patronatuaren aurrean, ez banaka ez kolektibo gisa, onuradunen gozamenerako eskubiderik, eskubide horiek eman baino lehen, ezta pertsona jakin batzuei esleitzea inposatu ere.

3.- Edozein kasutan, Fundazioak inpartzialtasun eta ez-diskriminazioko irizpideekin jokatuko du onuradunak zehazteko orduan.

Fundazioak, interes orokorreko bere xedeen barruan, objektibotasun- eta inpartzialtasun-irizpideekin jokatu beharko du bere onuradunak hautatzeko orduan, inolako diskriminaziorik egin gabe. Zentzu horretan, onuradunak izan daitezke mediku kolegiatuak eta medikuen alargunak eta umezurtzak.

8. artikulua.- Publizitatea

Fundazioaren onuradunek eta interesatuek haren jarduketak ezagutu ditzaten, Patronatuak behar adina publizitate egingo du bere helburu eta jardueren buruz.

II. TITULUA. PATRONATUA

1. KAPITULUA. OSAERA ETA ESKUMENAK

9. artikulua.- Patronatua

Patronatua da Fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzako organo gorena, eta bere kargura izango ditu fundazio-xedeak betetzeko behar diren Fundazioaren kudeaketarako zuzendaritza- eta kontrol-eskumen guztiak. Zehazkiago esateko, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratuko ditu.

10. artikulua.- Osaera eta iraupena

Patronatuak gutxienez hiru eta gehienez zazpi kide izango ditu. Horietatik, erdiak baino bat gehiago Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Zuzendaritza Batzordeko kideak izango dira eta gainerakoak, berriz, Batzordekoak edo Batzordez kanpokoak.

Patronatuko kide karguak lau urteko iraupena izango du. Bi urtetik behin berrituko da erdika, baina Lehendakariak eta Idazkariak ez dute kargua aldi berean utziko. Berritze bakoitzaren ondoren, Fundazioko Lehendakaria eta Idazkaria aukeratuko dira. Aldi baterako iraupenaren kasuan, gobernu-organoko kidea berriz hautatu ahal izango da, aldi berdinetarako eta inolako mugarik gabe.

11. artikulua.- Kideak izendatzea eta hutsuneak betetzea

Lehen Patronatua pertsona fundatzaileak izendatuko du fundazio-eskrituran.

Kide berriak izendatzea, bai Patronatua handitu delako bai kideak ordeztu behar direlako, Patronatuak berak egingo du, kideen gehiengoaren aldeko botoarekin, gutxienez, hartutako erabakiaren bidez.

Patronatuko kide izendatutako pertsonak espresuki onartu behar dute kargua, Legeko 12. artikuluan aurreikusitako formularen baten arabera. Onarpen hori Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

Heriotzagatik, ezintasunagatik, ezgaitzeagatik, heriotza-adierazpenagatik, eskusioagatik edo bateraezintasunagatik, agintaldia agortzeagatik, uko egiteagatik, kargutik enkaitzeagatik edo gobernu-organoko kide baten ordezte edo kargu uztea eragiten duen beste edozein zirkunstantziarengatik sortzen diren hutsuneak prozedura beraren bitartez estaliko dira, eta hutsunea ezingo da luzatu 6 hilabetetik gora.

Patronatuko kideek Estatutu hauetako 10. artikulua xedatutako gutxieneko kide-kopuruari eutsi behar diote erabakiak baliozkoak izan daitezen.

Epailleak Patronatuko kideak kargutik kentzea erabaki dezake, kargua Legean eta Estatutu hauetako 20. artikuluan aurreikusitako arduraz ez betetzearen ondoriozko erantzukizun-ekintza ezartzen denean haien aurka.

Gobernu-organoko kideen ordezkariak, kargutik kentzeak eta kargu-eteteak Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

12. artikulua.- Doakotasuna

Patronatuko kideek doan beteko dute bere kargua. Hala ere, euren funtzioak betetzeak eragiten dizkien behar bezala justifikatutako gastuak ordainduko zaizkie.

13. artikulua.- Fundazioko Lehendakaria

Patronatuak Lehendakari bat aukeratuko du bere kideen artean. Lehendakariak deitu beharko du Patronatua bere ekimenez edo, gutxienez, kideen heren batek eskatuta. Eztabaidak zuzentzea eta erabakiak betearaztea ere berari dagokio.

Patronatuko Lehendakariak izango du gobernu-organoren ordezkari goren eta, gobernu horretako kideak bereak dituen eta Estatutuek berari esleitutako eskumenez gain, Lehendakariari dagokio Patronatuaren eta Fundazioko beste organo batzuen erabakien ondoriozko ekitaldi eta kontratu guztietan Fundazioa ordezkatzeko. Gainera, sortzen diren auzi, espediente, arazo administratibo, gobernu, judizial eta judizioz kanpokoetan Fundazioaren ordezkari izatea dagokio eta eskumena du Prokuradoreen edo Abokatuen alde auzietarako ahalorde orokorrak emateko, aipatutako xederako.

14. artikulua.- Lehendakariordea

Patronatuak Lehendakariorde bat izenda dezake bere kideen artean, kideen gehiengoaren botoarekin hautatua izango dena.

Lehendakariordeak Lehendakaria ordeztuko du hark huts egiten badu edo gaixotzen bada. Hori egiaztatzeko nahikoa izango da haiek hala adieraztea. Lehendakaria eta Lehendakariordea falta badira, kide zaharrenak ordeztuko ditu.

15. artikulua.- Idazkaria

Patronatuak Idazkari bat izenda dezake, *bere kideen artean edo kideetatik kanpo*. Idazkariaren ardurak izango dira Fundazioaren administrazio-lanak egitea, haren dokumentazioa zaintzea, egiten diren saioen akta jasotzea eta, onartu ondoren eta Lehendakariaren oniritziarekin Akta Liburura transkribatzea.

16. artikulua.- Diruzaina

Patronatuak, egokitzen jotzen badu, Diruzain bat izendatu ahal izango du *bere kideen artean edo kideetatik kanpo*, Patronatuak emandako funtzioak bete ditzan.

Diruzainari eman dakizkiokeen funtzioak honako hauek dira:

- 1.-Fundazioaren funtsak biltzea eta zaintzea.
- 2.-Diru-sarrera eta gastuen balantzea aurkeztea eta sinatzea.
- 3.-Inbentario, Kontu eta Aurrekontuen Liburuez eta Liburu Egunkariaz arduratzea.

17. artikulua.- Fundazioaren zerbitzura dagoen pertsonala

Halaber, Patronatuak Fundazioaren kudeaketaz edo beste jarduera batzuk egiteaz arduratzeko eska diezaioke gobernu-organoko kideren bati edo beste hirugarren pertsona batzuei, kasu bakoitzean betetzen dituzten funtzioei dagokien ordainsariarekin.

18. artikulua.- Patronatuaren eskumenak

Patronatuaren eskumena Fundazioaren gobernuari dagozkion arlo guztietara hedatzen da eta, bereziki, honako eginkizun hauetara:

- 1- Fundazioaren orientazioa adieraztea, bere xedek hobeto betetzeko.
- 2- Baliabide ekonomiko eta finantzario guztien administrazioa, edozein dela ere haien jatorria.
- 3- Aurreko ekitaldiko Inbentarioa, Egoera Balantzea, Emaizten Kontua eta Memoria eta denboraldi bereko Diru-sarrera eta gastuen aurrekontuaren likidazioa onartzea.
- 4- Hurrengo ekitaldiko Diru-sarrera eta gastuen aurrekontua eta horren Memoria esplikatzailea onartzea.
- 5- Komeni diren barne-erregimeneko arauak onartzea.
- 6- Batzorde Delegatuak sortzea, haien kideak izendatzea, eskumenak zehaztea eta, ondorengo artikuluan xedatutakoaren arabera, ahalorde orokorrak edo bereziak ematea.
- 7- Zuzendaritzako karguak, betearazleak eta aholkularitzakoak izendatzea eta behar diren gainerako teknikariak, administratiboak, lan-kontratudun nahiz mendeko langileak kontratatzea, Estatutu hauetako 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- 8- Fundazioaren xedek modurik onenean betetzeko behar diren era guztietako ekintzak eta kontratuak formalizatu eta onartzea, arlo zibilekoak nahiz merkataritza, lan edo administrazio-arlokoak edo beste edozein motatakoak.
- 9- Goragoko mailako erabakia behar duten arazoetarako, organismo eskudunei dagozkien proposamenak egitea.
- 10- Enpresa, erakunde, organismo edo partikularrek lankidetzat teknikoko eta langile kualifikatuen prestakuntzako programetan parte hartzea sustatzea, diru-funtsen eta lankidetzat-hitzarmenen bitartez.
- 11- Herentziak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo haiei uko egitea, betiere Fundazioarentzat komenigarritzat jotzen badira, eta Babesletzaren jakinaren gainean jartzea.
- 12- Fundazioko Estatutuak aldatzea, fundatzailearen borondatea hobeto betetzeko beharrezkoa izanez gero.

19. artikulua.- Delegazioak, ahalordeak emateak eta Batzorde Delegatuak

Patronatuak bere kideetako bati edo gehiagori eman diezazkieke bere ahalorde batzuk edo guztiak, kontuak eta aurrekontuak onartzea, kudeaketa arrunta gainditzten duten ekintzak edo Babesletzaren baimena behar duten ekintzak izan ezik.

Aurreko paragrafoan adierazitako mugapenekin, Patronatuak Batzorde Delegatuak eta Betearazleak era ditzake, kasu bakoitzean finkatzen diren eskumenekin, eta baita ahalordedun orokorrak edo bereziak izendatu ere, funtzio mankomunatuarekin edo solidarioekin.

Delegazio eta ahalorde orokorrak, baldin eta auzitarakoak ez badira, eta haien errebokatzeak, Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira.

20. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak

Fundazioko Patronatuko kideak behartuta daude:

- a) Fundazioko xedeak zorroztasunez betetzera eta betearaztera, Legean eta Fundazioko Estatutuetan xedatutakoaren arabera.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzera eta haien produktibitateari osotasunean eustera, kudeatzaile on baten irizpide ekonomiko-finantzarioen arabera.
- c) Kargua lege-ordezkarri baten ardurarekin betetzera.

21. artikulua.- Autokontratazioa debekatzea

Patronatuko kideek ezin dute kontraturik sinatu Fundazioarekin, ez euren izenean ez hirugarren baten izenean ere, Babesletzaren baimenarekin izan ezik.

22. artikulua.- Erantzukizuna

1- Patronatuko kideek erantzukizuna dute Fundazioaren aurrean Legeek xedatutako baldintzetan.

2- Erantzukizunetik libre geratuko dira hura sortu duen erabakiaren aurka azaldu direnak edo erabaki hura hartzen parte hartu ez dutenak, baldin eta haren berri bazutela eta euren desadostasuna adierazi ez zutela frogatzen ez bada.

3- Gobernu-organoen erantzukizuna eskatzeko ekintza jurisdikzio arruntaren aurrean egikaritzea eta ekintza horri dagokion epai irmoa Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira.

4- Bere ekimen propioz edo interes legitimoa duenaren zentzuzko eskaerari jarraituz egikaritu ahal izango du Babesletzak erantzukizun-ekintza hori. Fundatzaileak ere egikaritu ahal izango du, Patronatuko kideen jarduna fundazioko xedeen aurkakoa edo haientzako kaltegarria denean.

2. KAPITULUA. PATRONATUAREN FUNTZIONAMENDU-ERREGIMENA

23. artikulua.- Barne-funtzionamendua

Patronatuak, gutxienez, lau bilera egingo ditu urtean Urte bakoitzeko aurreneko sei hilabeteetan derrigorrez bilduko da, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, inbentarioa, jardueren memoria, egoera-balantzea eta emaitzen kontua onartzeko, Estatutu hauetako 30. artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Halaber, laugarren hiruhilekoan, dagokion deialdia egin ondoren, hurrengo ekitaldiko aurrekontua onartzeko da, abenduaren 31 baino lehen Babesletzari igortzeko.

Patronatuaren deialdiak idatziz egin beharko dira, Lehendakariak erabakitako eguneko gai-zerrenda barne dela. Zerrenda hori osatzeko gobernu-organoko kideen iradokizunak kontuan hartu beharko ditu Lehendakariak. Deialdia bilera baino, gutxienez, 10 egun lehenago bidaliko da, urgentziazko kasuetan izan ezik. Kasu horietan, epea 3 egunera murriztu daiteke.

24. artikulua.- Eraketa eta erabakiak hartzea

Patronatua balio osoz eratuta geratuko da lehen deialdian kideen erdiak baino bat gehiago bertaratzen direnean, pertsonalki edo ordezkari bidez.

Aurreko paragrafoan adierazitako quoruma biltzen ez bada, Patronatua ordubete geroago bilduko da, eta bigarren bilera horretan, nahikoa izango da edozein kide-kopuru bertaratzea, baldin eta gutxienez 3 badira eta Lehendakari edo Lehendakariorde titularra bertan badago.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoa alde batera utzita, Patronatua deituzat ulertuko da eta balio osoz eratuta geratuko da kide guztiak bertan direnean eta bilera egitea aho batez onartzen dutenean.

Erabakiak botoen gehiengo bidez hartuko dira, honako kasu hauetako batean izan ezik:

1.-Aldatzeko, bat egiteko eta iraungitzeko erabakia, bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa beharko baita kasu horretan.

2.-Estatutu hauetan beste bozketa-quorum bat xedatuta duen beste edozein.

Lehendakariaren botoak erabakiko ditu egon daitezkeen berdinketak.

Patronatuaren bilera bakoitzean dagokion Akta jasoko du Idazkariak. Bilera zein leku eta egunetan egin den zehazteaz gain, bertaratutakoak, eztabaidatu diren gaiak eta hartutako erabakien edukia ere zehaztuko dira akta horretan.

III. TITULUA. ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

I. KAPITULUA. OSAERA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINZA

25. artikulua.- Fundazioaren ondarea

Fundazioaren ondarea ekonomikoki balora daitezkeen ondasun eta eskubide guztiek osa dezakete.

Fundazioa, bere xedapen- eta administrazio-ekintzetan aplika dakizkiokeen arauetara doituko da, eta bere etekin edo errentak berezkoak dituen xedeetarako erabiliko dira, hori guztia Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera.

26. artikulua.- Baliabideak

Fundazioaren ondarea honako hauek osatuko dute:

a) Fundazioko eskrituran jasotako hasierako zuzkidurak.

b) Kide fundatzaileen eta atxikien ekarpen eta kuotek, arruntek nahiz apartekoek, eta Patronatuko kideek borondatez ordaintzea onartzen duten kuota eta ekarpenek, arruntek nahiz apartekoek.

c) Zuzenbidean onartutako bitartekoen bidez eta, bereziki, beste pertsona, erakunde eta instituzio batzuek emandako legatu, dohaintza, ekarpen eta diru-laguntzen bidez aurrerantzean jasotzen duen beste edozein ondasun edo eskubidek. Dohaintza, legatu eta herentzien onarpena Babesletzaren jakinaren gainean jarri behar da.

d) Ondarearen eta Fundazioak egiten dituen jardueren etekin, errenta, produktu edo mozkinak, eta baita indarreko legeriaren arabera eman ditzakeen zerbitzuen ordainsariek ere.

e) Aplikazioko lege-esparruaren barruko beste edozein baliabidek.

27. artikulua.- Ondare-aldaketak

Fundazioaren Patronatuak, egoera ekonomikoak aholkatzen duenaren arabera, noiznahi eta behar den guztietan egin ahal izango ditu fundazioko kapitalean beharrezkoak iruditzen zaizkion aldaketak, eraldaketak edo konbertsioak, kapitalak bere balio nominalari eutsita ere, bere balio efektiboa edo erosteko ahalmena murriztu ez dezan.

28. artikulua.- Fundazioko ondarearen zaintza

Fundazioko ondarearen zaintza eta babeserako honako arau hauek hartuko dira kontuan:

a) Fundazioko ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideek Fundazioaren izenean egon behar dute, Inbentarioan jasota eta, behar izanez gero, dagokien Erregistroetan inskribatuta egon behar dute.

b) Ondasun higiezinak eta/edo eskubide errealak Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Inskriba daitezkeen gainerako ondasunak dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.

c) Titular gisa Fundazioa duten baloreak, eskudirua, jabetza-tituluak, gordailuen frogagiriak, eta domeinu, edukitza, erabilera, gozamen edo beste edozein eskubide egiaztatzen duten beste edozein dokumentu Patronatuak erabakitako erakundean gordeko dira Fundazioaren izenean.

d) Gainerako ondasun higigarriak Patronatuak erabakita bezala zainduko dira.

Ondasun eta eskubide horiek guztiak Patronatuko Idazkariaren kargura egongo den Inbentarioen Liburuan zehaztuko dira. Haren ikuskaritzapean, haiek identifikatu eta deskribatzeko behar diren gorabehera guztiak adieraziko dira Liburuan.

II. KAPITULUA. EKONOMIA-ERREGIMENA.

29. artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa

Ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da eta urte naturalarekin bat etorriko da.

Fundazioak aurrekontu arrunta prestatuko du ekitaldi ekonomikoko bakoitzerako, diru-sarrerak eta gastuak modu orekatuan jasoko dituena.

Aurrekontua Babesletzaren aurrean aurkeztuko da onartutako urteko azken hiruhilekoan, Memoria esplikatzaile batekin batera.

30. artikulua.- Ekonomia- eta kontabilitate-betebeharrak

Patronatuak inbentarioa, egoera-balantzea eta emaitzen kontua egingo ditu, Fundazioaren ondare-, ekonomia- eta finantza-egoera islatzeko. Urtean zehar egindako jardueren eta ondarearen kudeaketa ekonomikoen memoria ere egingo du, fundazioko xedeak eta legezko aginduak betetzen direla ezagutzera emateko eta justifikatzeko. Aurreko urteko diru-sarrera eta gastuen aurrekontuaren likidazioa ere egingo du, ondorio horietarako Legearen xedapenak betez.

31. artikulua.- Kontuak ematea

Urte bakoitzeko aurreneko sei hilabeteen barruan, Patronatuak Babesletzaren aurrean justifikatu beharko du Fundazioen Legeko 27. artikuluan aurreikusitako baldintzetan bere kudeaketa egokia izan dela fundazioko xedeetarako.

32. artikulua.- Kontu-auditoria

Urtero egingo da kontuen kanpoko auditoria.

Kontu-auditoreen txostenak honako kontsiderazio hauek izan beharko ditu, gutxienez:

a) Kontabilitatearen eta urteko kontuen bitartez egiaztatutako lege- edo estatutu-araudiaren aurkako balizko arau-hausteei buruzko oharrak.

b) Egiaztatu duten edozein gertakariri buruzko oharrak, gertakari hori Fundazioaren finantza-egoerari buruzko arrisku bat denean.

Auditoreek egiten duten txostena Fundazioen Erregistroan utzi beharko da, bertan aipatzen diren kontuekin batera.

III. KAPITULUA. BALIABIDEAK FUNDAZIOKO XEDEEI APLIKATZEKO ARAUAK

33. artikulua.- Administrazioko diru-sarrera eta gastuen helmuga

1- Fundazioaren ondasunak eta errentak, fundazioko xedek zuzenean eta berehala gauzatzeari atxikitzen joko dira.

2- Fundazioak aldiro-aldiro programatuko ditu bere xedearen berezko jarduerak eta, xede horretarako, urtero egingo da prestazioen plangintza eta urtero erabakiko da hura egiteko eta esleitzeko modua.

3- Edozein kontzeptugatik, eskuratu ondorengo hiru urteko epean, lortzen diren errenta garbien eta beste diru-sarrera batzuen % 70 Fundazioaren xedek betetzeko erabiliko da, gutxienez, hala dagokionean irabazi horiei dagozkien zergak kenduta.

Fundazioa eratzeko unean edo baita ondoren ere ondare-zuzkidura gisa egiten diren ekarpenak, eskakizun hori betetzetik libre daude.

Gainerako diru-sarrerak fundazioko zuzkidura handitzeko erabiliko dira, % 20 gaintu ezin dezaketen administrazio-gastuak kendu ondoren, baldin eta Fundazioak arrazoituta eskatutako Babesleztaren berariazko baimenik ez badago, indarreko legezko eta erregelamenduzko xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.

IV. TITULUA. ALDAKETA, BAT EGITEA ETA IRAUNGITZEA

34. artikulua.- Aldaketa

Fundazioko Patronatuak Estatutu hauen aldaketa sustatu ahal izango du, baldin eta fundazioko xedek hobeto betetzeko komeni bada. Aldatzeko erabakia kideen bi herenen aldeko botoarekin hartu beharko da, gutxienez.

35. artikulua.- Bat-egitea

Patronatuak beste erakunde batekin edo batzuekin bat-egitea ere erabaki dezake, baldin eta fundazioko xedeari behar bezala erantzuten bazaio. Erabakia arrazoiturik hartuko da, kideen bi herenen aldeko botoarekin gutxienez.

36. artikulua.- Iraungitzea

Fundazioa honako kasu hauetako batean iraungiko da:

1- Estatutu hauetan aurreikusitako kasu berezi gisa, Fundazioaren xedeei aurre egin ezin zaienean.

2- Kode Zibileko 39. artikuluan edo beste Lege batzuetan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

3- Bat-egiteko prozesu baten ondorioz gertatzen denean.

4- Ebazpen judizial irmoagatik desegiten denean.

37. artikulua.- Iraungitzeko prozedura

Aurreko artikuluko 1. eta 2. ataletan aurreikusitako kasuetan, Fundazioa iraungitzeko erabakia Patronatuak hartu beharko du eta Babesletzak berretsi.

Iraungitzeko erabakia arrazoitua izango da, kasu guztietan, eta ondare-egoera eta likidazio-programa adierazi beharko dira.

Gobernu-organoaren erabakirik ez balego edo erabaki hori Babesletzak berretsiko ez balu, Fundazioa iraungitzeko ebazpen judizial arrazoitua beharko du, hala dagokionean, Babesletzak edo fundazio-organoak eska dezakeena.

Iraungitzeko erabakia edo, hala dagokionean, ebazpen judizial arrazoitua, Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

38. artikulua- Likidazioa

Fundazioko likidazioaren ondoriozko ondasunak eta eskubideak, fundatzaileak fundazio-eskrituran adierazitako borondatearen arabera, Patronatuak bere izaeraren arabera erabakitako interes orokorreko xedeetarako erabiliko dira. Patronatuak egingo ez balu, Babesletzak bideratuko ditu iraungitakoaren antzeko xedeak dituzten beste Fundazio edo Erakunde batzuetara, ahal izanez gero, helbidea udalerrri berean edo, bestela, Lurralde Historiko berean dutenetara.

V. TITULUA. BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

39. artikulua.- Babesletza

Fundazioa Babesletzaren babespean, aholkularitzapean eta kontrolpean dago, indarreko Legeetan aurreikusitako baldintzetan.

40. artikulua.- Fundazioen Erregistroa

Fundazio honen eraketa, eta baita legez beharrezkoa duten egintza edo negozio juridiko guztien eraketa ere, legearen arabera eskumena duen Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

VI. TITULUA. FUNDAZIOAREN PERTSONA KOLABORATZAILEEN ERREGIMEN JURIDIKOA

41. artikulua.- Fundatzaile atxikiak

Fundazioko Gutun izaera duen Eraketa Eskriturari beste pertsona fisiko edo juridiko batzuk atxiki dakizkioke, hura egiletsi ondoren eta fundatzaile

kategoriarekin, baldin eta atxikitze hori eskritura egiletsi eta bi urteko epearen barruan gertatzen bada.

Aurrez finkatutako epearen barruan egindako fundatzaile-izaerako atxikitzeak fundatzaileak edo, ondorengo paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, horretarako ahalmena duten Patronatuko kideek onartu beharko dituzte. Hautagaiek egin beharreko ekarpen ekonomikoa ere horiek finkatuko dute.

Lehen aurreikusitako atxikitze-epea amaitzen ez den bitartean Patronatuaren eraketa airean geratuko da, eta Fundazioko Gutunean fundatzaileak izendatutako kideei Estatutuek Patronatuari ematen dizkioten eskumen guztiak gauzatzeko ahalmena emango zaie.

42. artikulua.- Kolaboratzaile atxikiak

Fundazioko Eskritura egiletsi ondoren, fundazioko xedea lortzen lagundu dezaketen jarduerak edo ekarpenak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak atxiki ahal izango zaizkio, kolaboratzaile atxiki izaerarekin, Fundazioari.

Aurrez aipatutako izaera duten atxikipen-eskaerak Patronatuko kideen gehiengoak onartu beharko ditu eta baita hautagaiek, hala dagokienean, egin beharko duten ekarpen ekonomikoa finkatu ere. Kolaboratzaile horiek Patronatuan parte hartu ahal izango dute, Patronatuak hala erabakitzen badu.

43. artikulua.- Ohorezko kolaboratzaileak

Patronatuak ohorezko kolaboratzaile izenda ditzake fundazioko xedea lortzen nabarmen lagundu duten edo laguntzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.